

## AIE BEKEN DEIALDIA 2025/26



AIE erakundeak (Sociedad de Artistas Intérpretes o Ejecutantes de España) bere Asistentzia eta Kultura programaren baitan, 2025/26 ikasturterako ondorengo deialdi hauek egiten ditu:

### 115 AIE BEKA, Musika-ikasketak egiteko edo zabaltzeko, honela banatuta:

- **22 AIE BEKA, 1.000 eurorainoko** zenbatekoarekin, honako sei eskola hauetara bideratuta:
  - **Escuela de Música Creativa**, Madril 6 AIE BEKA
  - **Taller de Músicas**, Bartzelona 6 AIE BEKA
  - **Aula de Música Moderna I Jazz Fundació Conservatori del Liceu**, Bartzelona Horietako bi Ricard Roda Bekak izango dira 4 AIE BEKA
  - **Escuela Fundación Cristina Heeren de Arte Flamenco** 4 beka horiek 2.000 euroko 2 bekatan batu ahaliko dira 4 AIE BEKA
  - **Escuela de Música Joaquín Turina**, Sevilla 2 AIE BEKA

• **44 AIE BEKA, 1.000 eurorainoko** zenbatekoarekin, REEM sareko bederatzik eskola hauetara bideratuta:

- **Conservatorio Mayeysis**, Vigo 6 AIE BEKA
- **Escuela de Música Piccolo y Saxo**, Logroño 6 AIE BEKA
- **Escuela de Música y Baile Presto Vivace**, A Coruña 6 AIE BEKA
- **Estudio Escola de Música**, Santiago de Compostela. Egoera jakin batzuetan, matrikulatu ahal izateko zentroko gutxieneko ikasgai batzuk eska ditzake 6 AIE BEKA
- **Academia de Música Contemporánea**, Madril 5 AIE BEKA
- **Escuela de Nuevas Músicas**, Madril 5 AIE BEKA
- **Taller de Músicos**, Madril 5 AIE BEKA
- **Jam Session Escuela de Música**, Bartzelona 3 AIE BEKA
- **Escuela de Música Martín Códax**, Toledo 2 AIE BEKA

Hitzarmen horiei esker, eskola horiek guztiek **44 AIE BEKA hornitzen laguntzen dute eta beka bakoitzaren zenbateko osoaren % 30ko ekarpena egiten dute**. Bekaren zuzkidura osoak matrikularen zenbateko osoa estaliko ez balu, bekadunak bere gain hartu beharko du gainerako aldea. Eskola bakoitzeko baldintza espezifikoei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, zentro bakoitzaren webgunera jo daiteke.

• **44 AIE BEKA** Musika-ikasketak egiteko edo zabaltzeko, ofizialak ez diren aukera askeko musika-eskoletara zuzendutakoak, Espainian zein atzerrian.

• **5 AIE BEKA** Musika-ikasketak egiteko edo zabaltzeko, **35 urtetik gorako AIE erakunde bakoitxeko zuzendutakoak**, ofizialak ez diren aukera askeko musika-eskoletan ikasteko, Espainian zein atzerrian.

### 29 AIE BEKA, Espezializazio Handikoak, honela banatuta:

- **3 AIE BEKA, 6.000 eurokoak**, Berklee College of Music (Boston, AEB) eskolarentzat
- **5 AIE BEKA, 6.000 eurokoak**, ofizialak ez diren musika-eskolentzat, Espainian zein atzerrian.
- **4 AIE BEKA, 6.000 eurokoak**, Madrilgo **Escuela Superior de Música Reina Sofía** eskolarentzat.
- **AEI BEKA bat, 6.000 eurokoa**, Bartzelonako **Conservatori del Liceu zentrorako**, goi-mailako ikasketak arautuak egiteko.
- **AEI BEKA bat, 6.000 eurokoa**, Bartzelonako **Taller de Músics zentrorako**, goi-mailako ikasketak arautuak egiteko.
- **AIE BEKA bat, 6.000 eurokoa**, Madrilgo **Escuela Superior de Música de Alto Rendimiento (ESMAR)** eskolarentzat. L'Elizana (Valentzia).
- **AIE BEKA bat, 6.000 eurokoa**, Madrilgo **Escuela Superior de Música Creativa** eskolarentzat, Musikako goi-mailako ikasketetara zuzenduta.
- **AIE BEKA bat, 6.000 eurokoa**, Centro Superior **KATARINA GURSKA** eskolarentzat, Zuzendaritza Sinfoniko, Instrumental eta Bokaleko masterra egiteko.
- **3.000 euroko 2 AIE BEKA Bartzelonako Jam Session Escuela de Música** eskolarentzat, Rock Musikako goi-mailako ikasketetara zuzenduta.
- **2 AIE BEKA, 3.000 eurokoak**, Donostiako **Musikene** eskolarentzat, Musikako goi-mailako ikasketetara zuzenduta, Interpretazio Klasikoa eta Jazz espezialitateetan.
- **3 AIE BEKA, 2.000 eurokoak**, **Escuela Superior de Música de Catalunya (ESMUC)** eskolarentzat, musika klasiko eta garaikideko instrumentuetarako Interpretazio Ikasketak Aurreratuen Masterreko (MEA) ikasleentzat.
- **2 AIE BEKA, 5.000 eurora artekoak**, AIEren musika-taldeen kudeaketako (orkestrak, bandak, abesbatzak, taldeak eta abar) masterrerako.
- **AIE BEKA bat, 3.000 eurokoa**, **Jazz Tete Montoliu** eskolarentzat, ofizialak ez diren musika-eskolentzat, Espainian zein atzerrian.
- **2 AIE BEKA, 10.000 eurokoak**, Liverpooletako (Erresuma Batua) **Liverpool Institute for Performing Arts - LIPA** zentroarentzat. Beka horiek goi-mailako ikasketen ikasleei daude zuzenduta, zentroaren sarrera-proba ofizialak gainditu badituzte bere egutegiaren arabera. Informazio gehiagorako: [www.lipa.ac.uk](http://www.lipa.ac.uk)

### 6 AIE BEKA, 300 eurokoak, Granadako Nazioarteko Musika eta Dantza jaialdiak antolatutako Manuel de Falla Ikastaroei zuzenduta, ikasle aktiboentzat:

- ¡Tech beat! ikastaroa. Musika sorkuntzaren egoera aro digitaletan.
- Pedagogia ikastaroa. Musika-hezkuntza goiztiarra: adierazpen-komunikazioa eta sormena.
- Granadako Jaialdiaren Akademia Barrokoa.
- Pianoko klase magistralak.

AIEk Granadan bizi ez diren ikasleei emango dizkie AIE BEKA hauek, modalitate honetarako espresuki sortutako epaimahai batek hautatuta, eta eskatzaileei esleipenaren berri emango zaie **2025eko maiatzaren 19tik** aurrera. Zuzkidurak matrikula- eta egonaldi-gastuak estaliko ditu, 300 euroko gehienekora arte. Ikastaroen antolatzaileek ez dute Granadan ostaturik eskaintzen. Gastu hori ikasleak zuzenean ordaindu beharko du laguntzaren 300 euroen kontura. AIE erakundeak ordainketa zuzenean bideratuko du AIE beken hartzaileekin.

Manuel de Falla Nazioarteko Ikastaroei zuzendutako AIE Beken onuraduna izateko, dagozkien irakasleek ikaslea aktibo gisa hautatu behar dute, ikastarorearen baldintzen arabera.

Informazio gehiago hemen: Tel: 661 672 366

<http://www.granadafestival.org>

[cursos@granadafestival.org](mailto: cursos@granadafestival.org)

### 1. ESKATZAILEENTZAKO BETEKIZUNAK

- AIE Beka bat jasotzeko aukera izango du aktiboan dagoen musikaren edozein profesional edo ikasleak, instrumentua edo ikasketak modalitate edonolako dela ere, ahotsa, orkestra-zuzendaritza edo teknologia berriak barne.

- Ikasleek zein profesionalak Espainiako edo Europar Batasuneko beste herrialde bateko nazionalitatea izan beharko dute, baita Latinoamerikako herrialde bateko ere, betiere legez bizi badira Espainian.

- **Espezializazio Handiko AIE Beken** eskatzaileek, euren eskaerarekin eta gainerako dokumentuekin batera, azken ogasun-aitorpena bidali beharko dute, edo eduki ezean, bere gurasoena edo tutoreena.

### 2. ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaera tramitzatzeko, interesdunek online eskaera-formularioa bete beharko dute eta [www.aie.es/formacion/becas-aie/](http://www.aie.es/formacion/becas-aie/) web orrian eskatzen den dokumentazioa erantsi beharko dute.

**Eskaera eta dokumentazioa aurkezteko epea 2025eko martxoaren 31n amaizituko da, 18:00etan.**

AIE erakundeak konfidentzialtasun zorrotzez tratatuko ditu eskatzaileek emandako datuak.

### 3. HAUTAKETA

Eskaeren azterketa eta hautaketa AIEren esku egongo da, eta horretarako epaimahai espezifikoa izendatuko ditu, sona handiko profesionalak osatuak; hala, balioespen-irizpide gisa eskatzaileen meritu akademikoak eta artistikoak hartuko dituzte kontuan, baita haien hezkuntza- eta lanbide-planak ere. Espezializazio Handiko Beken kasuan, epaimahaiak entzunaldira edo elkarrizketa pertsonalera deituko ditu kalifikazio espedientearen puntuaziorik altuena jaso dituzten eskatzaileak.

### 4. JAKINARAZPENA

**2025eko uztailaren 11tik** aurrera, AIE erakundeak eskatzaileei jakinaraziko die beka eman zaien edo ez, Manuel de Falla Nazioarteko Ikastaroei zuzendutako sei AIE BEKEN kasuan izan ezik, horien esleipenaren berri maiatzaren 19tik aurrera emango baita.

### 5. ESLEIPENA

AIE erakundeari dagokio AIE BEKAK ematea; hortaz, ahalmena dauka edonori beka kentzeko, dagozkion baldintzak betetzen ez baditu.

### 6. BEKADUNEN OBLIGAZIOAK

- Oinarrriotan ageri diren baldintzak betetzea.

- Emandako beka idatziz onartzea, behin AIE erakundeak esleipenaren jakinarazpen ofiziala igorrita. Onarpena bertan adierazitako data baino lehen egiten ez bada, bekarik uko egin zaiola jakintzat joko da.

- Espezializazio Handiko bekadunek AIE erakundeak antolatutako kontzertu batean parte hartzeko konpromisoa hartuko dute idatziz.

- Ezinbesteko eskakizuna da goi-mailako espezializazio-bekadunentzat beste erakunderen baten bekarik ez edukitzea.

### 7. AIE BEKEN ORDAINKETA

Aukera askeko eskolei zuzendutako AIE BEKEN kasuan, heziketa-gastuek gutxienez bekaren zenbatekoaren % 60 bete beharko dute.

AIE erakundearekin Lankidetzaz Hitzarmen bat egin duten eskolei zuzendutako AIE Beken kasuan, AIE erakundeak ikasketak-zentroekin zuzenean bideratuko du bekei dagokien ordainketa.

Beken esleipenei dagozkien aipatutako zenbateko guztiak gordinak dira eta indarrean dagoen zerga-araudiaren mende daude.

2025/2026 beka-deialdiaren oinarri garatuak kontsultatu hemen: [www.aie.es/formacion/becas-aie](http://www.aie.es/formacion/becas-aie)



**BECAS AIE**  
**DE ESTUDIOS MUSICALES**  
**\* FORMACIÓN**  
**\* ALTA ESPECIALIZACIÓN**